

ZAINZURI ZURIA EGOSIA

written by Errezetak



Udaberriak Nafarroako erriberako baratzaren urre zuria dakar, Afrika eta Europako ekialdetik omen dator, eta Euskal Herria Erromatarrek ekarri zuten barazki ikaragarri hau. Egia edo gezurra izan, etxean afaltzeko denboraldia bukatu arte mahai gainean egongo dira.

Osagaiak:

- Nahi adina zainzuria
- Gatza
- Ura

Prestaketa:

1. [Zainzuriari](#) bukaeratik hasita 1/3 moztu.



2. Ondoren azal-kentzeko gailua erabiliz hiru alditan pasa kanpoko azala kentzeko asmoz.



3. Kazola bat urez bete (nik kazola zapala erabili oi dut) eta behin irakiten hasten denean, gatz ez ondu eta maila bat zainzuri jarritz, 10-12 minutuz egosi, kazola estalirik dugula.



3. Hozten utzi. Behin hotzak daudela, etxean baratxuri bat oso txikiturik gaineratik hautsezatu eta olio birjina gaineratik gaineratuz zerbitzatu.

